Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

1490

EBAZPENA, 2009ko otsailaren 12koa, Garapen Laguntzarako zuzendariarena, PRO-2005K3/0053 «Educación en Derechos Humanos» proiektuaren zati bati uko egitea onartzen duena. Unesco Etxea-Centro Unesco País Vasco entitateak aurkeztu zuen proiektua, Garapenean Lankide Izateko eta Laguntzeko Fondoaren konturako 2005eko deialdiaren barruan.

Garapen Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kontura 2005eko ekitaldian proiektuei laguntzak emateko dei egiten duen eta laguntza horiek arautzen dituen apirilaren 5eko 70/2005 Dekretuak honela dio 28. artikuluaren 1. paragrafoan: erakunde eskatzaileak jarduera gauzatzerakoan sartu nahi dituen aldaketen berri berehala emango dio Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari eta, aldi berean, aldaketa horiek aurrekontuan izango duten eragina zehaztu beharko du. Proposatutako aldaketak onartzea, bestalde, Garapen Lankidetzarako zuzendariaren eginkizuna da.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren agindu bidez 33.611 euroko diru-laguntza eman zitzaion Unesco Etxea-Centro Unesco País Vasco entitateari, «Educación en Derechos Humanos» proiektua burutzeko.

Aipatutako entitateak, 2009ko otsailaren 4an, 110,85 eurotan uko egiteko eskabidea egin zion, idazki baten bidez, Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari; hain zuzen ere, diru-laguntzaren barruan bidaia eta egonaldien partidari dagozkienetan.

Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak diru-laguntzaren erakunde onuradunak eskatutako aldaketen aldeko irizpena eman du eta, horren ondorioz, honakoa

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– «Educación en Derechos Humanos» proiektuan diru-zenbateko osoa 110,85 eurotan –bidaiei eta egonaldiei dagozkienak- murrizteko egindako eskabidea onartzea. Unesco Etxea-Centro Unesco País Vasco entitateak aurkeztu zuen proiektua, Garapenean Lankide Izateko eta Laguntzeko Fondoaren konturako 2005eko deialdiaren barruan.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

1490

RESOLUCIÓN de 12 de febrero de 2009, del Director de Cooperación al Desarrollo, por la que se aprueba la renuncia parcial para el proyecto, PRO-2005K3/0053, «Educación en Derechos Humanos» presentado por la entidad Unesco Etxea-Centro Unesco País Vasco dentro de la convocatoria de ayudas a proyectos con cargo al Focad 2005.

El apartado 1 del artículo 28 del Decreto 70/2005, de 5 de abril, que regula y convoca ayudas a proyectos con cargo al Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo para el ejercicio 2005, establece que la entidad solicitante deberá informar inmediatamente a la Dirección de Cooperación al Desarrollo de las modificaciones que pretenden introducirse en la realización del proyecto especificando las repercusiones presupuestarias que implican. Corresponde a la Dirección de Cooperación para el Desarrollo aprobar las modificaciones propuestas.

Por Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, se concedió a la entidad Unesco Etxea-Centro Unesco País Vasco una subvención de 33.611 euros para la realización del proyecto Educación en Derechos Humanos.

La citada entidad, en comunicación dirigida a la Dirección de Cooperación al Desarrollo con fecha 4 de febrero de 2009 formuló una solicitud de renuncia parcial por 110,85 euros, correspondientes a la partida de viajes y estancias de la subvención concedida.

La Dirección de Cooperación al Desarrollo informa favorablemente a los cambios solicitados por la entidad beneficiaria de la subvención, en vista de lo cual,

RESUELVO:

Primero.– Autorizar la renuncia solicitada por Unesco Etxea-Centro Unesco País Vasco en el proyecto Educación en Derechos Humanos presentado dentro de la convocatoria de ayudas a proyectos con cargo al Focad 2005. Esto supone la devolución de 110,85 euros pertenecientes a la partida de viajes y estancias de la subvención concedida.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke. Ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunean hasi eta hilabetekoa izango da horretarako epea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 12a.

Garapen Lankidetzarako zuzendaria,
IGOR IRIGOYEN FUENTES.

Segundo.– Contra la presente Resolución, se podrá interponer recurso de alzada en el plazo de un mes, a partir del día siguiente a su notificación.

En Vitoria-Gasteiz 12 de febrero de 2009.

El Director de Cooperación al Desarrollo,
IGOR IRIGOYEN FUENTES.